



Dirección- Helbidea: C/ Tajonar 14 Aula 31
(CAP de Pamplona.)
Tfnos 948 247 194 / 653 957 559
apsnavarra@gmail.com
www.apsn Navarra.com

“JUICIOS TENGAS”: IRAKASLEAK, APS ETA TSJN

Denok dakigu Nafarroak funtzio publikoaren estatutu-araubidea kudeatzeko eskumena duela. Baina eskumen horrek muga bat ere badu, Estatuaren legediak bere funtzionario publikoei aitortzen dien eskubide eta esentziazko betebeharrak ezartzen dutena, hain zuzen ere. 2007ko maiatzaren 13tik indarrean dagoen Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuak (EBEP), 2007ko apirilaren 13koa den 7/2007 legearen 25.2 artikulua behin behieneko langileen trienioak aitortzen ditu.

Eskubide hau Nafarroan betidanik errefusatu egin da. APSNafarroak eskubide horren aitortzea eskatu zuten irakasle afiliatu talde bati laguntza juridikoa eman zion. Hortik aurrera gertatutakoa Marx Anaien edozein pelikulan ager zitekeen, baina, tamalez, errealitatea besterik ez da.

Atalez atal azalduko dizuegu:

- 1.) Nafarroako Administrazioarekiko Auzien 1 Epaitegiak sindikatu baten antzinatasunaren aitortze-eskaera bat ezetsi egin zuen.
- 2º) Nafarroako Administrazioarekiko Auzien 2 Epaitegiak APSko afiliatu batzuk jarritako errekurtsioa baietsi egin zuen eta, egindako zerbitzuengatik hirurtekoen eta Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuak (EBEP), 2007ko apirilaren 12koa den 7/2007 legea indarrean sartzetik izandako ordainsari-efektuen ordainketa jasotzeko eskubidea aitortzen die. Izan ere, aitortuko ez balitz, Konstituzioak jasotzen duen berdintasun-printzipioaren urratzea gertatuko litzateke.

Lehenengo ondorioa: Esentziazko eskubide honen aitortzea eskaera jartzen den epaitegiaren araberakoa da.

Egin dezagun aurrera:

- 3º) Nafarroako gobernuak, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien 2 Epaitegiak APSNafarroaren aldeko epaia eman eta hirurtekoen ordainketaren eskubidea aitortu ostean, irailaren 28an emandako 68/2009 Foru-Dekretuaren bidez ez ditu hirurtekoak